# NABARIDASKO AINTZIRA

*Nabaridasko Aintzira hezegune endorreikoa da, uretako ekosistema bat; arroan bertan bildutako euri-urak ez du kanporako irteerarik, eta lurrundu eta iragazi egiten da. Ondorioz, uraren maila aldatu egiten da urtean zehar, eta urtaro-izaera nabarmena eta ingurumen-baldintza oso dinamikoak eragiten ditu. Dinamika horrek gatz eta mantenugaien kontzentrazio handia eragiten du, eta, ondorioz, hezegunearen baldintza fisiko-kimikoak oso bereziak dira.*

*Datuak* / *Datos:* *3,11 ha* / *850 m (perimetroa / perímetro)*




# LAGUNA DE NAVARIDAS

*La Laguna de Navaridas es un humedal endorreico, un ecosistema acuático en el que el agua de lluvia recogida en su propia cuenca no tiene salida al exterior y se pierde por evaporación e infiltración. Como consecuencia, el nivel del agua varía a lo largo del año, dando lugar a un marcado carácter estacional y a condiciones ambientales muy dinámicas. Esta dinámica favorece una elevada concentración de sales y nutrientes, que confiere al humedal unas condiciones físico-químicas singulares.*




## Funtzioak eta berezitasunak

Hezegune endorreikoek funtsezko eginkizuna dute lurraldearen orekan:

- Uraren zikloa erregulatzen dute, uraren eskuragarritasuna mantentzen lagunduz.
- Landarediak "iragazki berde" gisa jarduten du, ura modu naturalean araztuz. Nabaridasko aintziran lezkadiak (*Phragere australis*), ihitokiak (*Juncus maritimus*) eta masiega-zingirak (*Cladium mariscus*) nabarmentzen dira.
- Biodibertsitate handia dute, eta babesa eskaintzen diete uretako hegaztiei, anfibioei, narrastiei, ugaztunei, odonatuei eta flora bereziari; hezegunea betetzeko eta lehortzeko ziklo naturaletara egokitutako espezieak dira.
- Ekosistema bereziak eta urriak dira, urtaro-aldaketa nabarmenetara egokituak.

## Mehatxuak eta presioak

Balio ekologiko handia duten arren, hezegune horiek oso hauskorrak dira.
Hauek dira mehatxu nagusiak:

- Nekazaritza areagotzea, erregimen hidrikoa aldatzen duena.
- Ura kutsa dezaketen ongarriak eta fitosanitarioak erabiltzea.
- Aintzira-ingurunea lehortzea, drainatzea edo aldatzea.
- Klima-aldaketa, lehorte-aldiak areagotzen dituena.


***Anas platyrhynchos***
Basahatea
Ánade real


***Ardea purpurea***
Lertxun gorria
Garza imperial


***Lestes dryas***
Berdeskamardula
Verdino robusto


***Panurus biarmicus***
Tximutxa
Bigotudo


***Libellula quadrimaculata***
Lau orbanekoburruntzia
Libélula de cuatro puntos

## Funciones y singularidades

Los humedales endorreicos desempeñan un papel fundamental en el equilibrio del territorio:

- Regulan el ciclo del agua, contribuyendo a mantener la disponibilidad hídrica.
- La vegetación actúa como "filtro verde", depurando el agua de forma natural. En la Laguna de Navaridas destacan los carrizales (*Phragmites australis*), juncales (*Juncus maritimus*) y trampales de masiega (*Cladium mariscus*).
- Albergan gran biodiversidad, ofreciendo refugio, zonas de cría y alimentación a aves acuáticas, anfibios, reptiles, mamíferos, odonatos y flora singular; especies adaptadas a los ciclos naturales de llenado y secado del humedal.
- Son ecosistemas singulares y escasos, adaptados a cambios estacionales marcado.

## Amenazas y presiones

A pesar de su alto valor ecológico, estos humedales son muy frágiles. Sus principales amenazas son:

- La intensificación agrícola, que altera el régimen hídrico.
- El uso de fertilizantes y fitosanitarios, que puede contaminar el agua.
- La desecación, drenaje o alteración del entorno lagunar.
- El cambio climático, que intensifica los periodos de sequía.